

GIPUZKOAKO HIRI HONDAKINAK KUDEATZEKO 2019-2030 PLAN OROKORRAREN (2019-2030 HONDAKIN PLANA) FORU ARAUAREN AURREPROIEKTUA EGITEA.

Ingurumen Zuzendaritza Nagusia hondakinen plan berria izapidetzen hasi da, Gipuzkoako Batzar Nagusiek, foru arau bidez, onartuko dutena **-Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 Plan Orokorra (aurrerantzean 2019-2030 Hondakin Plana)-**. Aurreikuspenen arabera, prozesu horrek hilabete iraungo luke eta datorren urteko otsailean amaituko litzateke.

2019-2030 Hondakin Planak bere lurralde esparruan hiri hondakinak kudeatzeko helburu estrategikoak ezarriko ditu. Helburu estrategiko hauen oinarria da prebentzioa eta ekonomia zirkularra errealitatea izatea Gipuzkoan.

2019-2030 Hondakin Planaren izapidetze prozeduran kontuan izango da derrigorrez bete beharreko lege esparrua, eta bertan sartuko dira, aldi berean, **informazio, kontsulta eta partaidetza publikorako** bideak:

1.-Foru Arauaren aurreproiektua jendaurrean jartzea.

6/2005 Foru Arauak, uztailaren 12koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 9.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, lurralde osoari dagozkion sektoreko plan bereziak foru arauen bidez erregulatuko dira.

2019-2030 Hondakin Planaren Foru Arauaren aurreproiektua hasierako onespena eta gero (2018ko uztailaren 25eko GAO), **Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak jendaurreko informazio eta entzunaldiko bi hilabeteko aldia irekiko du**, eta, epe horren barruan, edozein pertsonak aurkeztu ahal izango ditu **alegazioak**.

- 2019-2030 Hondakin Planaren Foru Arauaren aurreproiektua:
 - [Foru Arauaren Aurreproiektua](#)
 - [GHHKPO](#)
 - [Eranskina 1](#)
 - [Eranskina2](#)
 - [Eranskina3](#)
 - [Eranskina4](#)
 - [Ingurumen Azterketa Estrategikoa](#)

- Jendaurreko informazio eta entzunaldiko epea: 2018ko uztailaren 26tik irailaren 25era arte.

- Alegazioak Ingurumeneko Zuzendaritzari helaraziko zaizkio prozedura hauetako baten bidez:
 - Ingurumeneko Zuzendaritza zuzenduta posta arruntaz,
ingurumenzuzendaritza@gipuzkoa.eus helbidera elektronikora posta

elektronikoz, edo Gipuzkoako Foru Aldundiaren erregistroan aurkeztuz (Gipuzkoa Plaza z/g 20.004 Donostia).

- Idazkia bide elektronikoz erantsiz, [Gipuzkoako Foru Aldundiko Egoitza Elektronikoa](#). Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako pasahitz operatibo bat edo sinadura elektronikoko balioztatu bat beharko da.

2.- Deliberaziozko partaidetzaren prozesua.

1/2010 Foru Arauak, uztailaren 8koak, herritarren partaidetzari buruzkoak, ezarritakoaren arabera, foru arauen aurreproiektuak prestatzeko lanetan, horien xedea garrantzi bereziko gaiak direnean, hiri hondakinen kudeaketa gaia den bezala, herritarren partaidetzaren prozesua egingo da. Horregatik planak, hasieratik, **deliberaziozko partaidetzaren prozesu** bat jasotzen du. Prozesu horretan hainbat eragile sozial eta instituzionalek hartzen dute parte, plana prestatzeko eragile horien ekarpenekin dokumentua aberastearren eta horrela gobernu ekintzetan gardentasuna areagotzeko. Horretarako, **protokolo** bat prestatu zen, aipatutako prozesuaren oinarriak ezartzen dituen, eta **Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak onartu duena (2018ko uztailaren 25eko GAO)**.

Halaber, Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak izena emateko epea ireki du. Honetan, herritarren elkarteek eta pertsona indibidualek **aldez aurretik izena eman behar dute deliberaziozko partaidetzaren prozesuan** parte hartu ahal izateko.

Inskripzioak egin ondoren, deliberaziozko partaidetzaren prozesua irailetik aurrera egingo da, eta 2018ko abenduan amaitzea aurreikusten da.

- Deliberaziozko partaidetza prozesuaren protokoloa: <https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/euskera/gao/2018/07/25/e1805412.htm>
- Prozesuan izena emateko epea: 2018ko uztailaren 26tik abuztuaren 31ra arte.
- Deliberaziozko partaidetza prozesuan izena emateko formularioa egongo den web helbidea:

<https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/HACI/WATGipuzkoatariaWEB/inicio.do?idio ma=E&app=1008>

3.- Ingurumen ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura.

21/2013 Legeak, 2013ko abenduaren 9koak, Ingurumen ebaluazioari buruzkoak eta 211/2012 Dekretuak, 2012ko urriaren 16koak, planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duenak xedatutakoarekin bat etorritik, hondakinen planek ingurumen ebaluazio estrategiko arrunta izan behar dute nahitaez, eta, beraz, ingurumen azterlan estrategiko batekin batera tramitatuko dira.

Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak, aldez aurreko kontsulten tramitea amaitu eta gero, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 Plan Orokorren Irismen Dokumentua igorri du.

- 2019-2030 Hondakin Planaren irismeneko dokumentua: <http://www.gipuzkoaingurumena.eus/eu/-/gipuzkoako-hiri-hondakinak-kudeatzeko-2019-2030-plan-orokor-1>